

1. Deialdia

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Arkitektura Goi Eskola Teknikoak (AGET-UPV/EHU, aurrerantzean) *Landartean Mod 2: ingurune naturalarekin lanean* mikrokredentziala eskaintzen du. AGET-UPV/EHUrentzat, estrategikoa da Arkitekturako ikasle ohiak hirien birnaturalizazio prozesuetarako formakuntzan eta espezializazioan sustatzea. Deialdi honen bidez, mikrokredentzialaren matrikulan diru-laguntza eman nahi zaie arkitekto tituluaren matrikula AGET-UPV/EHU ikasketak amaitu dituzten ikasleei.

2. Onuradunak

Beka hauek dira AGET-UPV/EHUko ikasle egresatuentzat.

3. Erabaki organoa

Mikrokredentzialaren zuzendariek jasotako eskariak jasoko ditu eta zozketa burutuko du 4.puntuaren arabera.

4. Adjudikazio irizpideak

Diru-laguntza eskaera egiteko epean aurkeztutakoen artean zozketa egingo da.

5. Zenbatekoa eta gauzatzeko modua

Diru-laguntza mikrokredentzialaren matrikularen erdia ordaintzeko beka izango da, 90 euroko diru laguntzarekin bekadun bakoitzerako.

Guztira 2 beka esleituko dira.

6. Eskariak aurkezteko epea eta tokia

Eskaerak aurkeztu ahal izango dira deialdi argitaratzen den egunetik hasita, **2026ko apirilaren 16 arte**, biak barne, posta elektronikoko bat helbide honetara bidaliz: aget.landartean@ehu.eus, eskatzailearen izen-abizenak, NAN zenbakia, telefono zenbakia eta kontakturako posta elektronikokoaren helbidea.

Eskaerak jaso ondoren, adjudikaziodunen zerrenda argitaratuko du ikastegiak eta onoradunei jakinaraziko zaie.

7. Adjudikazioa

AGET-UPV/EHUK argitaratuko du adjudikaziodunen izen-zerrenda bat eta banan-banan jakinaraziko zaie erabakia eskatzaileei, eskaeran eman duten helbide elektronikokoaren bidez 2026ko apirilaren 17an.

Ikasleak emailera erantzun beharko du diru-laguntza onartzen dela berresteko eta mikrokredentzialaren web orrialdean matrikula burutu beharko du apirilak 22a baino lehen.

Matrikula ordaindu izanaren ziurtagiria aget.landartean@ehu.eus bidali beharko da, ondoren dirulaguntza jaso dadin. Matrikulazio formalizatzen ez bada aipatutako epeen barne, zozketa berria burutuko da esleidun zerrendatik kanpo gelditu diren ikasleen artean.

8. Onuradunen araubidea

Dirulaguntza hau jasoko duten ikasleek konpromisoa hartuko dute mikrokredentziala egiteko.

9. Deialdi honen aurkako errekurtsua

Deialdi honen aurka, aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioke errektoreari, hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, modu berean kontatzen hasita.

Donostia, 2026ko martxoaren 31a

Mikel Azkona eta Ula Iruretagoiena
Landartean: ingurune naturalarekin lanean mikrokredentzialaren zuzendariak